

### III ATALA: Farmacoterapia

#### 1. Analgesikoen preskripzioa (12 Gaia)

Hirugarren haginaren erauzketaren ondorengo mina tratatzeko, analgesiko bat agindu behar du odontologoak. Ze farmako aukeratuko zenuke egoera hauetan?

Paziente diabetikoa

Paziente erretzailea ultzera aurretikariarekin

Infartua pairatu duen pazientea eta gaur egun AAS hartzen du (150 mg/egun)

#### 2. Inflamazioaren tratamendu farmakologikoa odontologian (12 Gaia)

Irakurri artikulu hau: Lopez Carriches C y cols. Uso de metilprednisolona versus diclofenaco en el control de la inflamación y el trismo tras cirugía del tercer molar inferior. Med Oral Patol Ora Cir Bucal. 2006; 11:E 440-5.

<http://www.medicinaoral.com/medoralfree01/v11i5/medoralv11i5p440e.pdf>

Ze motako farmakoak dira diklofenako eta metilprednisolona? Ekintza mekanismoak azaldu

Zein da lanaren helburua?

Desberdintasunik aurkitu dira bi farmakoen artean inflamazio eta trismoaren kontrolerako eraginkortasunari dagokionez?

Parasetamolak eragin eskasa duala trismoaren kontrolean aipatzen da lanean. Zein da azalpena?

#### 3. Antimikrobiarren agindua (13 Gaia)

FB 71 urteko emakumea da eta historia kliniko honekin dator odontologoaren kontsultara hartz erauzketa egitera: Diabetes mellitus, hipertentsio arteriala, bihotz-gutxiegitasuna, fibrilazio atriala eta haurtzaroan sukar reumatikoa endokarditis bakterianoarekin. Penizilinekiko alergikoa da.

Neurri farmakologiko profilaktikorik hartu beharko luke odontologoak hartz prozedura egin baino lehen? Zein?



Kasu honetan odontologoak prozedura baino lehen antibiotiko dosi bakarra ematen dio pazienteari. Tratamenduaren ondorioz, emakumeak beherako larriak ditu eta analisi mikrobiologikoez erakusten dute *C.difficile* dela eragile etiologikoa. Zein izan daiteke odontologoak eman zion antibiotikoa?

#### 4. Antimikrobiarren agindua (13 Gaia)

Lotu lehen zutabeko farmakoak bigarren zutabeko odontologiako infekzioekin (zein den patologia hauentzat tratamendu antimikrobiar egokiena):

AMOXIZILINA	Gingiboestomatitis herpetica akutua
METRONIDAZOL+ESPIRAMIZINA	Endokarditis bakterianoaren
AZITROMIZINA	Ordezko hortzek eragindako estomatitisa
MIKONAZOL	Infekzio periodontala penizilinekiko alergikoa den pazientean
AZIKLOBIR	Gingibitis ultzeratiba nekrotizante

#### 5. Antsietatearen maneia kontsulta odontologikoan (14 Gaia)

Pazientea zure klinika odontologikora doa endodontzia egitera. Interbentzioagatik oso urduri sentitzen dela azaltzen dizu. “Inoiz ez ditut dentistak gustoko izan, txikitatik, kontsultara sartzea besterik ez eta ahoa lehortzen zait eta airea falta zaidala nabari dut” esaten du. Egoera honen aurrean, prozedura atzeratzea erabakitzen duzu, eta farmako ansiolitiko bat agintzen diozu, hurrengo bisita baino ordu bete lehenago hartzeko adieraziz, honela lasaiago etorriko dela esanez.

Hurrengo astean, prozedura egunean, pazientea kontsultara bere autoa gidatzen doa eta logura nabarmentzen du, izan ere, erdi lo gelditzen ari dela konturatzen da. Zorionez, ondo heltzen da kontsultara eta endodontzia egiten zaio arazorik gabe.

Ze talde terapeutiko erabiltzen dira odontologian ansiolitiko moduan?

Zein izango litzateke lehen aukerako farmako kasu honetan? Arrazoitu erantzuna

Pazienteak adierazten duenez, logura sentitzen du gidatzerakoan. Baliteke erreakzio honek emandako farmakoarekin zerikusirik izatea? Sahiesgarria al da?



## 6. Anestesiko lokalak (15 Gaia)

Barneratutako hirugarren haginaren erauzketa bat egiteko, odontologoak %2 lidokaina kartutxo bat ematen dio pazienteari, beheko hortz nerbioaren anestesia tronkularraren teknikaren bidez. Ez du lortzen behar den anestesia maila nahikoa eta kartutxoak xiringatzen jarraitzen du 15 ml-ko bolumena eman arte. Azken dosia emanda gero, pazientea zorabiatuta sentitzen da, aurpegian faszikulazio muskularrekin, ikusmen lausoa eta bapatean konbultsio toniko-klonikoekin.

Ze lidokaina kantitate eman dio pazienteari?

Nola azalduko zenuke pazienteak pairatutako sintomak?

Anestesikoaren xurgapena sistemikoa murrizteko modurik al dago, anestesiko lokalaren dosi altuak behar izatekotan, konbultsio eta beste eragin desiragaitzen agerpena saihesteko?

